

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Lacunza Kalor Group-en fabrika berria inauguratu du Lakuntzan

*Instalazio honetan, berrikuntzan eta diseinuan oinarritutako negozio ildo berria hasiko du enpresak*

Viernes, 16 de diciembre de 2011

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria [Lacunza Kalor Group](#) enpresak Lakuntzan zabaldu duen fabrika berriaren inaugurazio ekitaldian izan da gaur goizean.

Lacunza Kalor Group lan sozietate anonimo bat da,

berogailuak, tximiniak, berogailu tresnak eta sukaldeak egiten dituen. Instalazio berrietan, berrikuntzan eta diseinuan oinarritutako negozio ildo hasiko dute, altzairuzko xafla osagarri nagusi izango duena. Fabrika berriak 5.800 metro kuadro ditu eta bertan 35 langilek egiten duten lan.

Joan den mendeko 40ko hamarkadan sortu zen enpresa burdin galdaketa gisa eta 70eko hamarkadan egurrezko sukaldeak egiten hasi zen. 1997. urtean, lan sozietate anonimoan bihurtu zen. Beste fabrika bat du Altsasun, 45 langilerekin: egurrezko sukaldeak, berogailuak eta tximinia tradizionalak egiten ditu bertan. Gaur egun, 9 milioi euro fakturatzen ditu urtean. Nafarroako Gobernuak 1.057.637 euroko diru-laguntzak eman dizkio ikerketa eta garapen lanetarako (I+G+b).

Barcina Lehendakariak enpresako zuzendari eta langileak zoriondu ditu proiektua gauzatzeagatik eta "inguru honetan enplegu aukera berriak sortu eta negozio ildo berriak hasteagatik". Lehendakariak azpimarratu du, fabrika berri honetan, "tradizioa eta abangoardia batzen dira, ahaltsu bihurtu zaituzten produktuen balio eta funtsa mantentzen dituzue, eta ildo berriak sortu eta ahaltsuago eta lehiakorrago bihurtzen zarete". Nafarroako enpresen eta lanpostuen biziraupenerako -nabarmendu du-funtsezkoa da "moldatzeko ahalmena". "Nire iritziz, ezaugarri honen eredu oso ona zarete eta uste dut gogoan hartzekoa dela eta gure jarduera-esparruetan ezartzekoa".

### Lan enpresei eskerrak

Lehendakariak [Nafarroako Lan Enpresen Elkarteari](#) (ANEL) enpresei eskaintako laguntza eskertu dio eta Nafarroako Gobernua ANELekin lanean ari dela adierazi du zailtasunak dituzten enpresentzako aukera berriak bilatzen. "Uste dugu zeuen ereduak, kooperatiba eta sozietate



Lacunza Kalor Group-en egoitza Lakuntzan.

mugatuenak, lanpostuak mantentzeko aukera egingarriak direla, eta are gehiago inguru honetan, non hainbat proiektu arrakasta garrantzitsuarekin gauzatu diren. Argi dago egoera berrietara moldatu behar dugula eta gure eskuetan dagoela, guztion eskutan, lurraldearekin konprometitura dauden lan erakundeak sortzeko formula eta konponbide berriak bilatzea”.

Lourdes Goicoechea Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria, José Javier Esparza Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, José Ramón Garín Lakuntzako alkatea, eta ANEL eta enpresako ordezkariak ere izan dira inaugurazio ekitaldian.